

URBANIZAZIO-OBREETAKO PROIEKTUA IDAZTEA

Bikaintasun-maila

Hornitzaileentzako checklist-a: Ingurumen-irizpideak



1. ERANSKINA: ESKAKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukia, konpromisoa hartutako nahitaezko zehaztapen minimo guztiak eta zehaztapen baloragarriak betetzen direla berresteko. Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo horiek betetzen direla egiaztatzeko dagokion abala ez aurkezteak eskaintza esleipen-prozeduraren hurrengo faseetatik automatikoki baztertzea dakar.

Zehaztapen baloragarrietan, zehaztapena betetzen dela egiaztatzen duen abala ez aurkezteak horri lotutako puntuazioa (eskaintzarik onuragarriena zein den identifikatzeko balio duena) baliogabetuko du.

ENPRESAREN IZENA:			
NAHITAEZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL-MOTA	ESKAINZAREN ORRIA
Hondakinen kudeaketaren azterketa, EEHak sortzeko helburu batekin eta gutxienez % 80ko balorizazioarekin	<input type="checkbox"/>	1	
Obra exekutatzeko Ingurumen kudeaketako azterketa	<input type="checkbox"/>	1	
Erabiliko diren zura eta zurezko produktuak modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriak	<input type="checkbox"/>	2	
Erabili beharreko zura eta produktu asimilagarriak iturri legitimoetakoak eta mehatxatu gabeko espezieetakoak izatea	<input type="checkbox"/>	1	
Agregakin birziklatuaren erabilera % 30 erabilera egokietan	<input type="checkbox"/>	1	
Zoladurak metal astunik gabeak izatea	<input type="checkbox"/>	1	
Energia aldetik aktibo diren materialen/sistemen erabilera	<input type="checkbox"/>	1	
Txertatutako energia-adierazlearen kalkulua (MJ edo kWh) eta urbanizazioaren karbono-aztarna (kg CO ₂ bal.)	<input type="checkbox"/>	1	
1. AUKERA: Proiektuaren Ingurumen Jasangarritasunaren Kalifikazioa (IJK) Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua metodologiaren arabera, % 57koa	<input type="checkbox"/>	3	


IRIZPIDE BALORAGARRIAK	PUNTUEN % ¹	BAI	ABAL-MOTA	MEMORIAREN ORRIA
1. AUKERA				
Proiektuaren Ingurumen Jasangarritasunaren Kalifikazioa (IJK) Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburuaren arabera, % 57tik gorakoa		<input type="checkbox"/>	3	
2. AUKERA				
MATERIALAK: Materialak lekuan bertan aprobetxatzea eta kanpoko materialak ez sartzea.		<input type="checkbox"/>	1	
Produktuaren ingurumen-adierazpenak dituzten materialak		<input type="checkbox"/>	4	
URA: Urak berrerabiltzeko proposamenak		<input type="checkbox"/>	1	
EKONOMIA ZIRKULARRA: Ekonomia zirkularreko politikak eta neurriak		<input type="checkbox"/>	1	
EKOSISTEMAK: Berdeguneak zaintzen eta maximizatzen dituzten konponbideak gehitzea, eta		<input type="checkbox"/>	1	
Ureztatze-sistema efizienteak.		<input type="checkbox"/>	1	
ekotonoak zaintzeko eta indartzeko neurriak		<input type="checkbox"/>	1	
Iragazkortasunik handiena lortzeko irtenbideak		<input type="checkbox"/>	1	
ENERGIA: Energia geotermikoaren instalazioa		<input type="checkbox"/>	1	

¹ Ingurumen-alderdietarako esleipen-irizpideetan zehaztu denaren arabera.

JARRAIBIDEAK

“**ABAL-MOTA**” zutabearen, ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo zehaztapen edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen dela bermatzen duten dokumentuak nahiz informazioa jaso dezakeen dokumentazioa sartu dira. Hala ere, bestelako egiaztagiri baliokideak onartuko dira, baldin eta ezarritako irizpideak betetzen direla argi eta garbi frogatzen badute.

Zenbakiak bat datoz dokumentu hauekin:

1.	Enpresaren konpromisoaren adierazpena eta neurriaren deskribapena
2.	Modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriko diren zurak edo zurezko produktuak 
3.	“Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gidaliburua” (http://construccionsostenible.eus) aplikatzearen ondoriozko dokumentua: emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa edo aplikatu ez diren nahiz aplikatu behar ez diren neurrien justifikazioa
4.	PIA edo baliokidea eskatuko zaien materialen zerrenda 

“**ESKAINTZAREN ORRIA**” zutabearen, abala eransten den lizitazio-dokumentuko orria edo eranskina adieraziko da.